Urretxuko udala

## UDALAREN OSOKO BILKURA

## 2022ko EKAINAREN 29an EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIA

**Elkartutakoak**

**Alkatea:**
Jon Luqui Albisua, jauna (E.A.J./P.N.V.)

**Zinegotziak:**
Itziar Agirre Berriotxoa, andrea (E.A.J/ P.N.V))
Igor Zubillaga Aguado, jauna (E.A.J/ P.N.V)
Jon Albisua Garmendia, jauna (E.A.J/ P.N.V)
Maialen Fidalgo Mendizabal, andrea (E.A.J/ P.N.V)
Victor M. Pérez Eguren, jauna (E.A.J./ P.N.V.)
Ion Pol Agirre Berriotxoa, jauna (E.A.J./ P.N.V.)
Nekane Oruesagasti Aramendi, andrea (E H Bildu)
Igone Nestar Del Río, andrea (EH Bildu)
Mikel Elgarresta Mintegi, jauna (E H Bildu.)
Aitor Diaz de Espada Gorrochategui, jauna (EH Bildu)
Natividad Nieves Medina, andrea (P.S.E.-E.E)
Jokin Garcia Benítez, jauna ((P.S.E.-E.E)

**Idazkaria**
María Jose Begiristain Zabalo andrea

**Kontu-hartzailea**
Jon Iturrioz Nazabal jauna

Urretxun bi mila eta hogeita biko ekainaren hogeita bederatzian.

Arratsaldeko zazpirak direnean, aldez aurretik deitutako aparteko batzarra egiteko, Udalbatzarra bildu da udaletxeko batzar areto nagusian, goian agertzen diren udal-bazkideak elkartu dira.

En Urretxu a veintinueve de junio de dos mil veintidós.

Siendo las diecisiete horas se reúne en la Sala Capitular del Ayuntamiento el Pleno de la Corporación al objeto de celebrar sesión extraordinaria para la que había sido convocada y a la que asistieron los Señores Corporativos que arriba se indican.

**Urretxuko udala**

Lehendakariak ekitaldiari hasiera eman dio, eta bere aginduz, eguneko gai-zerrendan sartutako gaiei eztabaidatzeari ekin diote

Abierto el acto por la Presidencia y de su orden se pasó a tratar los asuntos relacionados en el Orden del Día

| | |
|---|---|
| 1.- Egonkortasuna, jasangarritasuna, eta gastuaren erregelaren betetzeari buruzko kontuhartzailetzaren txostena:<br><br>- KALD-5/2022 zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea: kreditu transferentziak.<br><br>- KALD-6/2022 zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea: kreditu gehigarriak. | 1 Informe de Intervención sobre cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto:<br><br>- Expediente modificación créditos nº KALD-5/2022 transferencia de créditos.<br><br>- Expediente modificación créditos nº KALD-6/2022 créditos adicionales. |
| 2.- KALD-7/2022 zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea: Kreditu gehigarriak: hasierako onarpena | 2.- Expediente modificación créditos nº KALD-7/2022 créditos adicionales: aprobación inicial. |

**1.- Egonkortasuna, jasangarritasuna, eta gastuaren erregelaren betetzeari buruzko kontuhartzailetzaren txostena:**

**- KALD-5/2022 zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea: kreditu transferentziak.**

Kontu hartzaile jaunak azaldu du kreditu-aldaketa hori maiatzaren 26ko Alkatetzaren Ebazpen bidez onartu zela, eta diru-partida batzuetatik besteetara kantitateak transferitzean datzala, hau da, partida batzuk txikiagotzea beste batzuk handitzeko edo berriak sortzeko kasu honetan bezala. Guztira, 8.531,43 € dira, eta honako partida hauei dagozkie:

**1 Informe de Intervención sobre cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto:**

**- Expediente modificación créditos nº KALD-5/2022 transferencia de créditos.**

El sr. interventor explica que esta modificación de créditos fue aprobada por Resolución de Alcaldía de 26 de mayo pasado, y que consiste en transferir cantidades de unas partidas a otras, es decir minorar algunas partidas para aumentar o crear otras, como es este caso. En total son 8.531,43 € que se corresponden con las partidas siguientes:

Urretxuko udala

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 1000.227.430.00.07 2022 | MERKATU ETA HIRIG. KOMERTZ. LAG. | 100.000,00 | 8.531,43 | 91.468,57 |
| | | | | |
| | GUZTIRA | **100.000,00** | **8.531,43** | **91.468,57** |

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

| Partida (*) | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 1000.481.430.00.01 2022 | HITZ.: CAMARA GIPUZKOA - EUSKADI BONO | 0,00 | 8.531,43 | 8.531,43 |
| | | | | |
| | GUZTIRA | **0,00** | **8.531,43** | **8.531,43** |

Jarraian kontu-hartzaileak aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta gastu-arauaren helburuak betetzeari buruzko txostenaren berri eman du.

Aurrekontu-egonkortasuna:
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazio ez-finantzarioak 1.151.183,56 €dira; diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako defizita 1.151.183,56 €; finantzaketa-ahalmena/-premia 0,00 €.

2022ko ekitaldirako ez da egonkortasun-helbururik ezarri, baina erreferentziazko defizita 189.839 eurokoa da Urretxurako.

Seguidamente el sr. interventor da cuenta del informe sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto, y expone:

Estabilidad presupuestaria:
Las obligaciones no financieras financiadas con remanente de tesorería ascienden a 1.151.183,56 €, el déficit financiado con remanente de tesorería es de 1.151.183,56 €; la capacidad /necesidad de financiación es 0,00 €.

Para el ejercicio 2022 no se ha establecido un objetivo de estabilidad, aunque sí un déficit de referencia, para Urretxu es de 189.839 €.

Bi kopuruen alderaketatik ikusten denez, Udalaren finantzaketa-ahalmenak/beharrak ez du gainditzen erreferentziazko defizit hori.

Finantza-iraunkortasuna.
2022ko abenduaren 31n Urretxuko Udalaren zor bizia % 0,00 izatea aurreikusten da. 2022ko ekitaldirako eten egin da zorpetze-helburua.

Gastu-araua.
2022an, orain arte, gastu konputagarriaren aldakuntza % 24,151ekoa izan da. 2022ko ekitaldirako, gastu-araua eten da.

Udalak ez du gainditu 2022ko ekitaldirako ezarritako erreferentziazko defizita, eta, beraz, ez du egin behar 9/2020 Foru Araubide Dekretuan aurreikusitako plan ekonomiko-finantzarioa.

Alkate jaunak azaldu du kreditu aldaketa honen arrazoia Udalaren Euskadi Bono Denda kanpainara atxikimendua izan dela. Kanpaina honetan herriko 22 denda sartu dira eta bakoitzak 134 bono izan ditu. Gogorarazten du ere kanpaina honetan 30 euroko erosketa bakoitzeko 10 € finantzatzen direla kopuru hau bonuaren balioa delarik.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**KALD-6/2022 zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea: kreditu gehigarriak**

De la comparativa de ambas cantidades se observa que la capacidad/necesidad de financiación del Ayuntamiento no supera dicho déficit de referencia.

Sostenibilidad financiera.
A 31 de diciembre de 2022 se prevé que la deuda viva del Ayuntamiento de Urretxu sea 0,00%.
Para el ejercicio 2022 se ha suspendido el objetivo de endeudamiento.

Regla gasto.
En el año 2022, hasta ahora, la evolución del gasto computable ha sido un 24,15%. Para el ejercicio 2022 se ha suspendido la regla de gasto.

Por tanto, no se ha superado el déficit de referencia establecido para el ejercicio 2022. Por tanto, no está obligado a aprobar el plan económico financiero previsto en el artículo 1.4 del DFN 9/2020.

El sr. alcalde expone que esta modificación de créditos se ha debido a la adhesión del ayuntamiento a la campaña Euskadi Bono Denda a la que se han adherido 22 comercios locales que han dispuesto de 134 bonos cada uno,. Recuerda que la campaña consiste en que por cada 30 € de compra se subvenciona 10 € que se corresponden con el valor de un bono.

La corporación se da por enterada.

**Expediente modificación créditos nº KALD-6/2022 créditos adicionales.**

Kontu hartzaile jaunak azaldu du kreditu-aldaketa hori ekainaren 21eko Alkatetzaren Ebazpen bidez onartu zela, eta horren bidez Matxinporta berregokitzeari dagokion partida egokitu nahi dela, 1.000 €-ko kontsignazioa eta izaera irekiarekin onartu zena, kontsignazio handiena emanez, zehazki 159.000 € gehiago gaur egun erabilgarri dagoen soberakinetik lortu direnak (4.866.91,26 €). Aukera hori onartzeko, alkateak du eskumena, ekitaldiko kreditu gehigarrien guztizko zenbatekoa ez baita aurrekontuaren % 5 baino handiagoa.

El sr. interventor expone que esta modificación de créditos ha sido aprobada por Resolución de Alcaldía dictada el 21 de junio pasado, y con la misma se trata de adecuar la partida correspondiente a la readecuación de Matxinporta, que se aprobó con carácter abierto y una consignación de 1.000 €, dotándola de la mayor consignación, en concreto 159.000 € más que se han obtenido del remanente actualmente disponible (4.866.91,26 €), posibilidad permitida, y para cuya aprobación es competente alcaldía dado que el importe total de los créditos adicionales del ejercicio no supera el 5% del presupuesto.

Berriro aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta gastu-arauaren helburuak betetzeari buruzko txostenaren berri eman du, KALD-5 kredituen aldaketan jasotakoaren ildo beretik.

Nuevamente da cuenta del informe sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto en el mismo tenor que el recogido en la modificación de créditos KALD-5.

Alkate jaunak azaldu du kreditu aldaketa ha Berriotxoa triangeluan Pumptrack pista egiteko erabiliko dela, eta dagoeneko lizitaziorako pleguak prestatzen ari direla esan du, eta urte amaierarako instalazioa izatea espero du.

El sr. alcalde informa que esta modificación de créditos va a ir destinada a la instalación de una pista Pumptrack en el denominado triangulo Berriotxoa para lo cual se están elaborando los oportunos pliegos, y espera poder contar con la instalación para final de año.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

La corporación se da por enterada.

**2.- KALD-7/2022 zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea: Kreditu gehigarriak: hasierako onarpena**

Alkate jaunak azaldu du KALD 7-2022 kreditu-aldaketa honekin honekin, ustez nahiko kontsignazio ez duten partidak haunditzen direla, eta partida berri bat sortzen dela:

**2.- Expediente modificación créditos nº KALD-7/2022 créditos adicionales: aprobación inicial.**

El sr. alcalde expone que con esta modificación de créditos KALD 7-2022 se procede también a aumentar algunas partidas cuya consignación se estima como no suficiente, y a crear una partida nueva:

Lurrak erostea: partidan 100.000 € gehiago jarri dira (guztira 170.000 €), Santa Barbara inguruan lurrak erosteko.

Ekiola fidantza: 40.000 €-ko diru-partida berri bat sortu da, Udalbatzak onartutako Protokoloan hartutako konpromisoa betetzeko.

Lorazaintza kontratua: partidan 95.000 € gehiago jarri dira. Zerbitzuaren arduraduna den Zubillaga zinegotziak azaldu du lizitazio prezio berria oraingoarekin alderatuta, 2019koa, dexente igoko dela zenbait arrazoi direla eta: zerbitzu egokia emateko gutxieneko langilegoa handitu behar da, hau da 2,5 langiletik 3ra pasatuko gara eta gainera kontuan izan behar da langile erdi horren %25 kostua Udalak ez duela ordaintzen esleipendunaren hobekuntza bat izan zelako. Arrazoi honezaz gain beste hauek ere gertatzen dira: lan-hitzarmenak jaso dituen soldaten igoera eta ordainsari berria; baliabide materialetan eta tresnerian KPI handiagoa; erregaien kostu altuagoa; eta zerbitzuaren arduradunaren soldataren erregularizazioa honek lorazainak baino soldata baxuago duela eta. Guzti honek 240.000 euroko lizitazio prezio berria dakar.

Kultur ekintzak: partidan 35.000 € gehiago jarri dira. Nerabeei zuzendutako PIZTU Mahaia proiektu berriaren bigarren seihilekoko jarduerak aurrera eramateko.

Adquisición de suelos: se ha aumentado la partida en 100.000 € (total 170.000 €) para la adquisición de terrenos en la zona de Santa Bárbara.

Fianza Ekiola: se ha creado una nueva partida con una consignación de 40.000 €, para llevar a cabo el compromiso adquirido mediante el Protocolo aprobado por este Ayuntamiento Pleno.

Contrato jardinería: se ha aumentado la partida en 95.000 € más. A este respecto, el sr. Zubilllaga, concejal responsable del servicio, explica que el nuevo precio de licitación va a sufrir un importante incremento respecto al actual que data de 2019 por diversas razones, tales como la necesidad de incrementar el personal necesario mínimo para dar un correcto servicio, de 2,5 personas pasamos a 3 trabajadores/as teniendo en cuenta además que el costo del 25% de esa media persona no es abonado por el ayuntamiento al ser una mejora de la adjudicataria presentada en su oferta. A esto hay que sumarle el aumento, por convenio colectivo, de los salarios y una nueva paga; el importante aumento del IPC en los materiales y utillaje; el aumento del precio del combustible; y, la regularización del salario de la encargada del servicio que está percibiendo menor importe que el jardinero a pesar de ser su responsable directa. Todo esto hace que el nuevo precio de licitación sea aproximadamente 240.000 €.

Actividades culturales: se ha aumentado en 35.000 € más, para llevar adelante las actividades del segundo semestre del nuevo proyecto PIZTU mahaia dirigido a adolescentes.

Jaiak: partidan 50.000 € gehiago jarri dira. Ez dago helburu zehatzik, baina kontuan izanik laster Pagoeta zentroa izango dela eta bertan ere jarduerak antolatu ahal izango direla.

Jarraian kontu-hartzaileak azaldu du kreditu aldaketa espediente honi ekainaren 21ean hasiera eman zitzaiola, eta kasu honetan onarpena emateko ahalmena Udalbatzarena dela.

Bestalde, berriro aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta gastu-arauaren helburuak betetzeari buruzko txostenaren berri eman du, aurreko puntuetan jasotakoaren ildo beretik.

Kontuan izanik Antolakuntza batzordeak ekainaren 22an emandako aldeko diktamena, eta gaia botoetara eramanda, aho batez, honakoa erabaki da:

**Lehenengoa.-** KALD-7-2022 zenbakiko kreditu gehigarrien modalitate-kredituak aldatzeko espedientea onartzea. Kreditu horiek Udal honen aurrekontuari dagokion proposamenean zerrendatzen dira, eta kapituluka honela laburbiltzen dira:

Fiestas: se ha aumentado en 50.000 € más, sin ninguna finalidad concreta, pero teniendo en cuenta que próximamente se dispondrá del centro Pagoeta en el que también se podrán organizar actividades.

Seguidamente da la palabra al sr. interventor quien informa que este expediente de modificación de créditos se inició el pasado 21 de junio, y que en este caso la aprobación del mismo es competencia del Pleno.

A continuación, el sr. interventor nuevamente da cuenta del informe sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto en el mismo sentido que en los dos puntos anteriores.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Organización emitido el 22 de junio pasado, y sometido el asunto a votación, por unanimidad, se acuerda:

**Primero.-** Aprobar el expediente de modificación de créditos modalidad créditos adicionales, núm. KALD-7-2022, que se relacionan en la propuesta formulada al respecto y correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento, y conforme al siguiente resumen por capítulos:

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| 2 | Gastu arruntak/gastos corrientes | 180.000,00 |
| 6 | Benetako inbertsioak /Inversiones reales | 100.000,00 |
| 8 | Finantza aktiboak/Activos financieros | 40.000,00 |
| | **GUZTIRA** | **320.000,00** |

Urretxuko udala

**Financiación**

| Kapituluak | Izena | Kopurua |
|---|---|---|
| 8 (sarrerak) | Aktibo finantzarioak Activos financieros | 320.000,00 |
| | **GUZTIRA** | **320.000,00** |

**Bigarrena.-** Erabaki hau jendaurrean jartzea hamabost egunez, erreklamazioak egin ahal izateko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hori behin betikoa izango da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainerako izapide berdinak eman beharko zaizkio.

**Segundo. -** Someter este acuerdo a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General

Eta beste gairik izan gabe, amaitutzat eman da bilkura, akta honen hasieran agertzen den eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogei direnean, eta horren guztiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se da por finalizada la presente sesión, siendo las diecinueve horas veinte minutos el día que encabeza la presente acta, de todo lo cual doy fe.